Euskaltelek itzulitako eta ekoiztutako eskuliburua

euskaltel

# Redmi 6

## Erabiltzailearen eskuliburua




## POR MESEDEZ, IRAKURRI ARRETAZ ESKULIBURU HAU TELEFONOA ERABILI AURRETIK.

### Eskerrik asko Redmi 6 aukeratzeagatik

Luze sakatu pizteko/itzaltzeko botoia, gailua pizteko. Segi pantailako jarraibideei, gailua konfiguratzeko.

### Informazio gehiago:

Sartu gure gune ofizialean: www.mi.com.

### MIUI

Redmi 6 terminalak MIUI softwarea du, Androiden oinarritutako gure sistema eragile pertsonalizatua; oso erraz erabiltzekoa da, eta maiz eguneratzen da mundu osoan dituen 200 milioi erabiltzailek baino gehiagok egindako iradokizunak kontuan hartuta. Informazio gehiago nahi baduzu, sartu hemen: www.miui.com

### SIM txartelaren erretilua




### Bi SIMeko aukerari buruz

- Bi SIMetan 4Gko zerbitzua emateko gai izan behar du tokiko telekomunikazio-operadoreak; beraz, gerta liteke leku guztietan ez eskura izatea zerbitzu hori.
- Leku batzuetako telekomunikazio-operadoreek bakarrik onartzen dute VoLTE teknologia.
- Sarea optimizatzen denean, gerta liteke eguneraketak aplikatzea. Xehetasun gehiago behar izanez gero, kontuan izan zure gailuak darabilen sistema operatiboaren bertsioa.

Modeloa: M1804C3DH
1804 zenbakiak adierazten du noiz merkaturatu den produktua: 2018/04.
Ingurumenarekin loturiko informazioa eskuratzeko, sartu esteka honetan:
http://www.ml.com/en/about/envlronment/

Nola bota produktu hau behar bezala: Ikur honek adierazten du produktu hau ez dela bota behar beste produktu batzuekin batera. Kontrolik gabeko hondakin batek ez diezaion kalterik eragin ingurumenari edo gizakien osasunari, arduraz birziklatu produktuak, baliabideen berrerabilera jasangarria sustatzeko. Erabilitako aparatua itzultzeko, erabili hondakinen jasotze-sistema baimendu bat edo jarri harremanetan produktua erosi zenuen saltokiarekin. Haiek arduratuko dira gailua modu seguruan birziklatzeaz.

### KONTUZ

Gailua lehertu egin daiteke, ez dagokion bateria bat erabiliz gero. Jarraibideen arabera bota erabilitako bateriak.

### Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua

- Irakurri hemen jasotzen den segurtasun-informazio guztia gailua erabiltzen hasi aurretik.
- Baimendu gabeko kableak, kargagailuak edo bateriak erabiliz gero, suteak, leherketak edo egoera arriskutsuak gerta daitezke.
- Zure gailuarekin bateragarri diren osagai baimenduak bakarrik erabili. Telefonoak behar bezala funtzionatzeko tenperatura-tartea: 0 °C - 40 °C.
- Tenperatura-tarte horretatik kanpo erabiliz gero, kalteak jasan ditzake gailuak.
- Zure gailuak bateria bat baldin badu, ez saiatu hura ordezten, kalterik ez eragiteko bateriari edo gailuari berari. Gailua kargatzeko, harekin batera emandako edo baimendutako kablea eta kargagailua bakarrik erabili. Beste kargagailu batzuk erabiliz gero, suteak edo deskarga elektrikoak gerta daitezke, edo kalteak jasan ditzakete gailuak edo kargagailuak berak.
- Kargatzen amaitu ondoren, deskonektatu kargagailua gailutik, baita korronte-hargunetik ere. Ez edukia gailua kargatzen 12 ordu baino gehiago.
- Bateria etxeko zaborretik bereizita birziklatu edo bota behar da. Bateria behar bezala erabiltzen ez bada, sute bat edo leherketa bat gerta daiteke. Gailua, bateria eta osagaiak botatzeko edo birziklatzeko, jarraitu tokiko araudiei.
- Ez desmuntatu, ez kolpatu, ez zanpatu eta ez erre bateria. -Bateria deformatuz gero, erabiltzeari utzi berehala.

- Ez eragin zirkuitulaburrik baterian, ez dadin gehiegi berotu eta ez dezan erredurarik edo beste zauririk eragin.
- Ez jarri bateria oso tenperatura altua dagoen lekuetan. Gehiegi berotzen bada, lehertu egin daiteke.
- Ez desmuntatu, ez kolpatu eta ez zanpatu bateria, ez dadin gertatu jariorik, eta ez dadin gehiegi berotu edo lehertu.
- Ez erre bateria, ez dadin gertatu suterik edo leherketarik.
- Bateria deformatuz gero, erabiltzeari utzi berehala.

- Ez busti telefonoa.
- Ez saiatu gailua zu konpontzen. Gailuaren atalen bat ez baldin badabil behar bezala, jarri harremanetan Mi-ren bezeroarentzako arreta-zerbitzuarekin, edo eraman gailua konponketa-zentro baimendu batera.

- Beste gailu batzuk konektatzeko, jarraitu haien eskuliburuetako jarraibideei. Ez konektatu gailu honekin bateragarriak ez diren gailuak.
- AC/DC kargagailurako, korronte-hargunea ekipotik gertu eta erraz iristeko moduan egon behar du.

Entzumen-arazorik ez izateko, ez erabili bolumen altua denbora luzez.

Segurtasunari buruzko informazioa nahi baduzu, kontsultatu erabiltzailearen eskuliburua, helbide honetan:http://www.mi.com/en/certification/

### Segurtasun-neurriak

- Errespetatu kasu eta ingurune eta kondizio jakin batzuetan telefonoen erabilera mugatzen duten lege eta arauak.
- Ez erabili telefonoa leku eta egoera hauetan: atmosfera lehergarriak dauden lekuetan, leherketak gerta daitezkeen lekuetan, hala nola erregaiz hornitzeko lekuetan, itsasontzi-bizkarren azpian, erregaiak edo produktu kimikoak lekualdatzeko instalazioetan edo aireak produktu kimikoak edo partikulak (alea, hautsa edo hauts metalikoa) dituen lekuetan. Kasu egin zure gailua edo beste ekipo bat itzaltzeko agintzen duten seinaleei. Itzali zure telefono mugikorra edo haririk gabeko gailua leherketa-eremu batean zaudenean edo "itzali bi noranzkoko irrati-aparatuak" edo "itzali gailu elektronikoak" idazkunak dauden guneetan, interferentziarik gerta ez dadin leherketetan.
- Ez erabili telefonoa ebakuntza-geletan, larrialdi-aretoetan edo zainketa intentsiboko unitateetan. Bete ospitaleetan eta osasun-zentroetan indarrean dauden arauak. Kontsultatu zure medikuari eta gailuaren fabrikatzaileari jakiteko zure telefonoaren funtzionamenduak eraginik izan dezakeen zure gorputzeko gailu medikoan. Interferentziarik egin ez dezan taupada-markagailuarekin, 15 cm-ko distantzia utzi behar da gutxienez telefono mugikorraren eta taupada-markagailuaren artean. Horretarako, taupada-markagailuaren kontrako aldeko belarrian erabili telefonoa, eta ez ezazu eraman bularraldeko poltsikoetan. Ez erabili telefonoa audifonoetatik, kokleako inplanteetatik eta antzekoetatik gertu, interferentziak saihesteko.
- Errespetatu aire-segurtasuneko arauak, eta itzali telefonoa hegazkinean, beharrezko denean.
- Ibilgailu bat gidatzen ari zarenean, trafiko-lege eta -araudiak errespetatuz erabili telefonoa.
- Tximisten eragina saihesteko, ez erabili telefonoa kanpoan ekaitz elektrikorik baldin badago.
- Telefonoa kargatzen ari baldin bada, ez erabili deiak egiteko.
- Ez erabili telefonoa oso leku hezeetan; esate baterako, bainugeletan. Erabiliz gero, deskarga elektrikoak, lesioak edo suteak gerta daitezke, eta kalteak jasan ditzake kargagailuak.
- Errespetatu kasu eta ingurune jakin batzuetan telefonoen erabilera mugatzen duten arauak.

### Segurtasun-oharra

Zure telefonoaren sistema eragilea eguneratzeko, erabili softwarea eguneratzeko funtzioa, edo zoaz gure zerbitzugune baimenduetara. Softwarea eguneratzeko beste bideren bat erabiltzen baduzu, besteak beste, gailua kaltetu egin daiteke, datuak galdu ditzakezu eta segurtasun-arazoak izan ditzakezu.

### EBren araudia

### REDen adostasun-deklarazioaren laburpena

Xiaomi Communications Co., Ltd.

Honen bidez, Xiaomi Communications Co Ltd-ek adierazten du GSM/GPRS/EDGE/UMTS/LTE telefono mugikor honek, zeinak Bluetooth eta WIFI M1804C3DH baititu, 2014/53/EU Direktibaren oinarrizko baldintzak eta beste xedapen batzuk betetzen dituela. EBren adostasun-deklarazioaren testu osoa hemen duzu: www.mi.com/en/certification
SARen testak egin dira gorputzetik 5 mm-ko tartearekin. Irrati-maiztasunekiko esposizioari buruzko jarraibideak betetzeko, komeni da gailua gorputzetik gutxienez distantzia horretara jartzea. Onartutako osagarriren bat erabiltzen ari ez bazara, ziurtatu metalik ez duela eta telefonoaren eta gorputzaren artean adierazitako tartea dagoela, gorputzetik urrun. 2 mailako hargailua

### Lege-informazioa

Gailu hau EBko estatu guztietan erabil daiteke. Jarraitu gailua erabiltzen ari zaren tokiko eta nazioko araudiei. Baliteke tokiko sareen arabera gailu honen erabilera mugatuta egotea.

Ziurtatu kargagailuak IEC60950-1 / EN60950-1-eko 2.5 klausulako baldintzak betetzen dituela, eta tokiko eta estatuko estandarrak kontuan hartuta probak egin direla eta onartuak izan direla.
Fabrikatzailea:
The Rainbow City of China Resources, No. 68, Qinghe Middle Street, Haidian District, Beijing, Txina 100085

### Potentzia eta maiztasun-bandak

Telefono mugikor honek maiztasun-banda hauek ditu EBn, eta irrati-maiztasuneko potentzia maximoa.
GSM900:35dBm
GSM 1800: 32 dBm
UMTS banda 1/8: 25 dBm
LTE banda 1/3/7/8/28/38/40: 25.7 dBm
Bluetooth: 20 dBm
WiFi-a, 2.4 GHz-ko banda: 20 dBm

### FCCri buruzko araudia

Gailu honek FCC araudiaren 15. zatia betetzen du. Erabili ahal izateko bi baldintza hauek bete behar ditu: (1) gailu honek ez du interferentzia kaltegarririk eragin behar, eta (2) gailu honek jasotako interferentzia guztiak onartu behar ditu, baita funtzionamendu okerra eragin dezaketen interferentziak ere.

Telefono hau probatu da, eta B motako gailu digitalentzako mugak betetzen ditu, FCC araudiko 15. zatiari jarraituz. Muga horien helburua da arrazoizko babesa ematea etxeko instalazioetan kalteak eragin ditzaketen interferentzien aurrean. Ekipo honek irrati-maiztasuneko (IM) energia sortzen eta erabiltzen du eta erradia dezake, eta jarraibideen arabera instalatzen eta erabiltzen ez bada, irrati bidezko komunikazioetan interferentzia kaltegarriak sor ditzakete. Beraz, ezin da bermatu instalazio batean interferentziarik gertatu ez denik ekipo honek interferentziaren bat baldin badu irrati edo telebista batekin, eta hori proba daiteke ekipoa piztu eta itzaliz. Interferentzia hori konpontzeko, neurri hauetakoren bat hartzea gomendatzen zaio erabiltzaileari:

- Aldatu antena hartzailearen orientazioa edo kokapena.
- Tarte handiagoa utzi ekipoaren eta hargailuaren artean.
- Konektatu ekipoa beste entxufe batean.
- Eskatu laguntza irratiekin/TBekin esperientzia duen banatzaile bati edo teknikari bati.

### IMen esposizioari buruzko informazioa (SAR)

Gailu honek irrati-uhinekiko esposizioari buruz Gobernuak dituen eskakizunak betetzen ditu. Irrati-maiztasuneko (IM) energiarekiko esposizioko emisio-mugak ez gainditzeko diseinatuta eta eginda dago gailu hau. Haririk gabeko gailuetarako absortzio espezifikoaren tasa edo SAR izeneko neurri-unitatea erabiltzen da. FCCk ezarritako SAR muga 1,6 W/kg da. Gailu hau gorputzetik gertu erabiltzeari dagokionez, hainbat proba egin dira, eta FCCk IMen esposizioari buruz (gorputzetik 1,0 cm-ko gutxieneko tartearekin eta metalik gabeko osagarri bat erabiltzeari dagozkionak) jarritako arauak betetzen ditu. Beste osagarri batzuk erabiliz gero, ez da ziurtatzen FCCk IMen esposizioari buruz jarritako arauak betetzea. Osagarririk erabiltzen ez baduzu eta telefonoa belarrian erabiltzen ari ez bazara, esku libreko kitak kokatuta egon behar du, gutxienez, gorputzetik 1,0 cm-ra gailua piztuta dagoenean.

### FCCren oharra

Aldaketak egin badira eta adostasunaren alde erantzuleak espresuki onartu ez baditu, ekipoa erabiltzeko baimena gal dezake erabiltzaileak.

### Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua

10 g-ko SAR-muga: 2.0 W/kg, SAR: Burua: 0.616 W/Kg,
Gorputza: 1.379 W/Kg (5 mm-ko tartea).
1g-ko SAR-muga: 1.6 W/kg, SAR-balioa: Burua: 0.95 W/Kg,
Mugikorra gorputzean: 1.15 W/Kg (10 mm-ko tartea).

### Tenperatura: 0 °C eta 40 °C bitartean

Instalatu kargagailua gailutik gertu, erraz iristeko toki batean.

### Etiketa elektronikoa:

Gailu honek ziurtagiriari buruzko informazioa ematen duen etiketa elektroniko bat du. Etiketa hori ikusteko, sakatu: Configuración > Acerca del dispositivo > Certificación edo hautatu Configuración, eta, ondoren, idatzi "Certificación" bilaketa-barran.

### NOM

ERABILI AHAL IZATEKO BI BALDINTZA HAUEK BETE BEHAR DITU:
a) Baliteke ekipo edo gailu honek interferentzia kaltegarririk ez sortzea.
b) Ekipo edo gailu honek edozein interferentzia-mota onartu behar du, bai eta haren funtzionamendu okerra eragin dezaketenak ere.

### KONEXIO-JARRAIBIDEAK:

1. Zure gailu mugikorra elektrizitate-hargune batera konektatzeko eta barne-bateria kargatzeko, erabili ekipo honekin emandako bateria-kargagailua bakarrik.
2. Konektatu USB-kablea telefonoaren USB-atakara.
3. Konektatu USB-kablea bateria-kargagailuaren USB atakara.
4. Konektatu kargagailua korronte alternoko elektrizitate-hargune batera (100-240 V~).
5. Bateria kargatuta dagoenean, kargagailua deskonektatzeko, heldu ondo kargagailuari eta kendu korronte alternoko hargunetik. Ez tira egin inoiz kableari.

### IMEIren kokapena

IMEIa zure ekipoaren atzeko aldean itsatsita dagoen etiketan eta kaxari itsatsitako etiketan dago.

Zure ekipoaren IMEIa zein den jakiteko, sakatu telefonoaren ikonoa, eta markatu *#06# edo sakatu "Configuración/Acerca del dispositivo/Estado/Información IMEI".

### FM irratia erabiltzea

FM irratia erabiltzeko, sakatu "Inicio"/"Herramientas"/ "Radio FM"; entzungailuek konektatuta egon behar dute, antena gisa funtzionatzen baitute.

Elikadura: 5 Vcc 1A
AC/CC kargagailua:
Sarrera: 100Vca-240Vca 50Hz/ 60Hz 0.2A
Irteera: 5 Vcc 1A

Xiaomi Communications Co., Ltd.
Telefono mugikorra
Modeloa: M1804C3DH
Marka: MI (Xiaomi)
Eskubide guztiak Xiaomi Inc-ek erreserbatuak.

000000000000-A